

## AROA. LEHENTASUNAK

### 1.- GUZTIENTZAKO LEHENTASUNAK

#### G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.

- G.1.1. Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu.
  - Toki- eta foru- erakundeek HPStik antolatutako hizkuntza eskubideak bermatzeko kanpainak babestu eta zabaldu.
  - G.1.1.2. Erakunde publiko eta pribatuekin lan egin herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eginbeharrez jabe daitezen.
    - Euskaraz barra-barra, Harrobi, Bikain bultzatu udalerriko entitate pribatu eta publikoen artean.
- G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.
  - G.1.2.1. EAEko administrazioen artean zein administrazio bakoitzaren barruko sail edo atalen artean elkarlana bultzatzea.
    - Proiektu sistematizatuak garatu gizarte eragile eta administrazio diferenteen arteko proiektuak aurrera eramateko (Transmisio proiektua, garapen agentziekin euskara planak zabaltzeko programak...)
  - G.1.2.3. Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu.
    - Euskaraldia...
  - G.1.2.4. Euskararen normalizazioan ari diren pertsonak, elkarteak, erakundeak, hedabideak, enpresak... saretu.
- G.1.3. Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.
  - G.1.3.1. Arduradun politikoak eta teknikoak euskara biziberritzeko prozesuetan trebatu.
    - Politikarien lidergoa aktibatuzeko ekintzak egin.
  - G.1.3.2. Lidergo postuetan hizkuntza-jokabide eredugarriak adostu eta gauzatu.
  - G.1.3.3. Administrazio publikoek euskararen biziberritzearen aldeko jokabide eredugarriak areagotu.
  - G.1.3.4. Euskara zerbitzuen funtzionamenduaren eta berregituratzearen inguruan hausnartu.

- Etorkizuneko euskara zerbitzuaren tostenaren bidetik pausoak eman

## G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu ~~oainarako~~ hizkuntzeekin nahiz kulturekin bizikidetzan.

- G.2.2. Zeharkako hizkuntza-politikak garatzeko estrategiak gauzatu.
  - G.2.2.2. Euskararen normalizazioari batzen zaizkion erronka sozio-politikoetan sakondu eta modu eraikitzailean eragin (jasangarritasuna, krisi ekologikoa, genero berdintasuna, gizarte aniztasuna, enpresen erantzukizun soziala...).
    - Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko zeharkakotasun estiloa orokortu.
  - G.2.3.2. Euskara biziberritzearen aldeko eta gizarte-berdintasunaren aldeko politikak uztartu, elkarrengandik elikatu.
  - Euskararen Aholku Batzordeak zeharkakotasunaz onartutako txosteneko ideiak praktikara eramatea erakundearen kudeaketan.
- G.2.3. Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.
  - G.2.3.4 Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasle, ikasleak, familia...) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatuz, komunikazio-esparruak zabalduz.
    - Kulturartekotasun proiektuak bultzatu.

## JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hitzunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta-portaeretan eragin.

- JM.1.2.1. Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu.
  - Euskaraz barra-barra ekimenean parte hartu.
  - Euskaraldiaren aktibazioan tokiko erakundea eragile bihurtu.
- JM.1.2.2. Eskaintza eta eskaera aktiboak eta jarrera proaktiboa bultzatu administrazioan, arlo sozioekonomikoan eta herritarren artean.
  - Euskaraz barra-barra ekimenean parte hartu.
  - Euskaraldiaren aktibazioan tokiko erakundea eragile bihurtu.

## JM2: Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.

- Hau, gainera, erabilera gaitasunari lotuta (EG3): Atzerritar jatorrikoak izan edo ez, euskarara hurbiltzen diren herritarren kopurua handitu.

## EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.

- EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.
  - HABEk eta udalek adostutakoak.
- EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta beharraren arabera eskaintzak sortu.
  - HABEk eta udalek adostutakoak.

## EG4: Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasunari (Gaitasun Erlatiboari) berariaz erreparatu.

- Hau JM1 erronkari lotuta (jarrera eta ahalduntzea). Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hitzunen ahalduntzean, Hizkuntza-ohituretan eta portaeretan eragin.

## EG3/EG4: Euskarara hurbiltzen diren (atzerritar jatorriko) herritarren kopurua handitu.

- Ulermena giltza erabilera eragiteko.

## EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu

- EE 1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu.
  - EE.1.1.3. Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.
    - Euskara lan-hizkuntza izan dadin euskararen erabilera planak egitea bultzatu administrazioetan. Euskara lan mundu pribatuan erabil dadin, enpresekin ditugun pilotajeak bultzatu eta Bikain, **HARROBI eta EUSKARAZ BARRA-BARRA**ren erabilera bultzatu. (Udalek, behargintzak, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak, HAKOBA).
  - EE.1.1.7. Euskarazko hedabideak bultzatu.
    - Udalek tokiko euskarazko hedabideetan publizitatea egin beharko lukete.
  - EE.1.1.6. Ingurune digitalean euskara erabiltzeko espazioak irabazi.
    - Arlo honetan, **HPStik egiten den politika orokorra zabaltzea eta laguntzea eskatzen da.**
  - EE.1.1.9. Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten.

- Udalek gida-baimenak euskaraz ateratzeko sustapena egin beharko lukete.

**K.1. Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.**

- **Nork eta zer komunikatu ondo jakin behar dela aipatu da lehenetsun bezala.**

**IB.2. Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu.**

- Esperimentazio eta berrikuntzarako espazioekin lankidetzan aritu (Badalab, Agirre Lehendakari Center)

## 2.- ARNASGUNEENTZAKO LEHENTASUNAK



**G.2. Berriazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.**

- G.2.2. Zeharkako hizkuntza-politikak garatzeko estrategiak gauzatu.
  - G.2.2.2. Euskararen normalizazioari batzen zaizkion erronka sozio-politikoetan sakondu eta modu eraikitzailean eragin (jasangarritasuna, krisi ekologikoa, genero berdintasuna, gizarte aniztasuna, enpresen erantzukizun soziala...).
  - Gune soziogeografikoaren etorkizuna baldintzatuko duten proiektu eta egitasmo oro aztertzea eta egokitzea, besteak beste, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa aintzat hartuta.
  - Arnasguneen bilakaerari eta euren errealitate soziolinguistikoari zuzenean eragiten dioten faktore demografiko, soziokultural, ekonomiko eta urbanistikoaren konplexutasunaz jabetzea, eta eremu hauen zaintzaren eta indartzearen aldeko politikak gauzatzerakoan alderdi horiek guztiak aintzat hartzea.

**JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta-portaeretan eragin.**

- JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.
  - JM.1.3.2. Ahalduntze-prozesuak sortu eta dinamizatu.
    - Arnasguneetako euskal hiztunak ahalduntzea.
- JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.
  - JM.2.1. Euskaldunen komunitatea sendotu.
    - Gune soziogeografiko hauen “komunitate bizi” izaera sendotu dezaketen politika eta jarduerak indartzea.
- JM.2.4. Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri.
  - JM.2.4.1. Euskaratik urrun daudenen pertzepzioetan sakondu.
    - Arnasguneetako erdaldunak sentsibilizatzea.

### EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.

- EG.1.3. Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.
  - EG.1.3.1. Behar duten hezitzaile eta irakasleek hizkuntza-gaitasuna hobetzeko prestakuntza indartu eta zabaldu.
    - Ahozko komunikazioa lantzea ikastetxeetan, euskalkitik estandarera doan bidean. Euskalkia eremu ez formaletarako, estandarra eremu formaletarako. Baita alokutiboa bizirik dagoenetan, erregistro honetan ere.
  - EE.1.1.6. Ingurune digitalean euskara erabiltzeko espazioak irabazi.
    - Arnasguneetako herritarrek dituzten komunikazio harreman digitalak aztertu eta etorkizuneko erronkak zein diren identifikatzea.
    - Eremu digitalean euskaraz jarduten duten kideen arteko guneak sustatzea eta babestea, herritarrei ezagutaraziz eta etorkizuneko eredu bihurtuz.
    - Euskarazko edukien sorkuntza handitzea, dibertsifikatzea (hartzaile motaren arabera) eta erdaretan dauden edukiak euskaraz kontsumitzeko aukerak handitzea.
    - Arnasguneetako herritarrak euskaraz sortzearen eta kontsumitzearen garrantzia kontzientziatzea eta erabilera indartzeko proiektuak sustatzea.

## EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.

- EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta beharrendaren araberrako eskaintzak sortu.
  - Euskara ikasteko aukerak erraztea arnaguneetan bizi diren erdaldunei.
  - Ahozko komunikazioa lantzea euskaltegietan, euskalkitik estandarerra doan bidean. Euskalkia eremu ez formaletarako, estandarra eremu formaletarako. Baita alokutiboa bizirik dagoenetan, erregistro honetan ere. Lehenarekin ingurune hurbilean azkarrago sustraitzeko, eta bigarrenarekin eremu soziofuntzional gehiagotan loratzeko.
  - Etorri berriei zuzendutako harrera-plan integralak aurreikusi eta planifikatzea, euskararen ikaste prozesua ardatz hartuta.

## EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berriarazko estrategiak garatu

- EE.1.1.2. Zaintza-guneetan euskararen erabileran eragin.
  - Langile etorri berriei euskara ikasteko aukerak eta baliabideak ematea eta erraztea. Jardueraren jabeak nahiz familiak ahalduetzeko bidea egin, bertako hizkuntzan lan egiteak eta zerbitzua emateak duen garrantzia balioan jartzeko.
  - Eragin soziolinguistiko handiena izan dezaketen lanpostuetara langile euskaldunak erakartzeko pizgarriak eskaintzea.
  - Etorri berrientzat planifikatutako harrera-planetan ikuspegi inklusiboa txeratzea: etorri berrien eta bertakoen arteko harreman eta elkarbizitza sustatzen duten praktikak bultzatzea, euskaratik eta kultur artekotasunetik abiatuz.
- EE.1.1.3. Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.
  - Arnaguneetako herritarrak herrian bertan lan egin eta bizitzeko aukerak erraztea (zuntz optikoa, jarduera ekonomikoa sortu edo garatzea...).

- Lehen sektoreko jarduera ekonomikoa duintzeko bideak aztertzea landa-eremuko herritarrek euren gunetan lanean jarraitzeko aukera izan dezaten. Era berean, landa-eremuan egiten den lana balioan jartzea.
  - Turismoan eta gastronomiaren arloan euskarak lekua irabaztea. Euskara, jarduera ekonomikoaren balio marka gisa ulertu eta eskaintzea. Izan ere, bisitari asko berariaz etortzen da udalerrri euskaldunetara euskara ikusi eta entzutera. Euskara balio erantsia da. Horregatik, ezinbestekoa da arnaguneetako jendea ahaldundu eta gogoeta eragitea haien hizkuntza-ohiturek euren inguruan duten eraginaren gainean.
- EE.1.4. Euskaldunen kopuru handiak dituzten eskualde-buruetan, hiriburuetan eta gune hiritartuetan bereziki eragin.
- Eskualde-buruen garrantzia aintzat harturik, udalerrri hauetan arreta berezia jartzea euskarak duen nagusitasuna bermatzeko.